Bai                                                                 1

Loramendi'tzar zerbait. 1934

Ama Euzkera'k, urtetsuba izanaren, luzaroko bizi-indara daruba bere baruban. Soñeko zarak bein-betiko jaurti dauz. Jantzi berriagaz apaindu debe bere semiak. Soña zarra ba-dau be. gogo barria ta gaztia daruba sorn zar oren unetan.

Soñeko barriz jantzitako alabatxuberi ama batek begiratu oi-dauetzen begiranez, begira ari-da Ama Euzkera be, bere elerti-baratzarantz. Bere semerik tuturren eta zintzubenak ekiñan-ekiñez ta jardunan-jardunez, ornitu ta atondu daben elerti baratz ederari begira. Mueta guztijetako baratzak dakaz: txikijak betiro, andijak eta joritsubak beste-batzu; zar-zemiel igarturik bapere ezta agin. Geyenak loran; bat-edo-beste bere adar oritzuben artian igali eder-gorijak txistxilista daukazela. Zorijuniak Euzkera. Amak bere malkubetaz busti euzan zugaztxu aren sustrai-egarrijak udako legorte zatarretan. ~~(Bortanbera)~~ Akeiter-eguzki-oriak galduak kishaldu, ereta galtzeko zorian eguberenian. Oraingo poz-malkubak darioz. ¡Ain gurija ta ikusgarrija egon be dago bere elerti-baratza!

\+ + + +

Baña... gaur negar dagi.. Atsekabez betia daka. Burutxube akera

jauzija, ule-txisma naastubak bekokijan bera, ta begi eder bijak malkoz bustijak.

Mendi-aldapako atxban ozotuba egusdiagaz begiz-begiz be ez, aren begijak baño diadirakubagua. Ezta agiri len añako ornidu ta betiz bere beratza. Iruditen bat ezete? Ez. Jofijan-txijan mietzunak dakuz; Erdijan tantai aundi biren gisara oraintxu eta-jan zugatz-oritsu-gurijak eta igali gorri-ederez betiak, eztakuz. Mietzune-zabal-lurgorija aren ordez. Galtzu ebai-barija be ez gorijaguba. Baña.... Lurgorija dirudi, baño ezta lurgorri utsa. Oraintsu mok-molutijak elbikartean letz, tristelista etzusan igali gorijak dira. Ez larritu, Ama; Zure malkubak eztira alperik galdu. Galduko be ez. Jaungoikuba'k bere donokiko baratzera eruban deutzuzan semien antzetsubak izan-gura dogu gu be. Euren loriotzak jasatu gura doguz ta.

Errenteri, Zubigar, Elzo.... oraintsu; Lizardi ta Loramendi gaur, guztijok Jaunak eraban dauz.

* * *

Juan diranen loriotzak, ointxadak, jasatuta Ama Euzkera ablatuko dogu; bijok-bijoketik matatuta bere zotiñak baretuko doguz, ta beran gogotik itxosi ta zabaldu ba-dagigu, bere baretzeko mietzunak ornidutuko doguz.

Arpegijan lotsarik eta zure bijotzian matxun-txinpartik bai al-dozu? Bai-ete? Zuriere orduban.

* * *

Lenakuban Lizardi'tzaz zerbait esan geban; Loramendi'tzaz gaur mintzatuko

~~gaiz~~ nayatzu.

Arana'tar Jon

1907'ko Ilbeltzaren 27'an Aretxabaleta'ko Bedoña auzunean jayo zan, Lekaidetxean Bedoña'tar Jokin eta euzko-olerti Celestijan Loramendi deituko jakun. Arana'tar Jon. Lagiñak bere gurasubak. Onen onduban iraun eban artian, beste baseŕijeta'ko mutiltxuben-antzera bizi izan zan. Noizipein Don Fermin, auzuneko jaupariaren ikastolera juaten zan. Eguberdi-aurre baten lekaide bixar-luze batek etadian eupada. Mutil bila ebilan. Mondibitxu'n be ba-zan mutil koskor bat, aretun juan gura ebana. Jontxu zan aipatu dogunau. Bixar-luzetun juan zan. Agur.

Mutil buru-argituba ta artara zan. Laster ikasi eban erderaz. Erdera ikasi ebanetzkero jaramon gitxi egin eutsan euzkerari. Urte gitxi barruban euzkera astu egin jakun. Bere utsegitia sartu danian oldartsu asi zan euzkera ikasten. Beste euzkotar askok be au egingo ba-lebe.... Ekiñan-ekiñaz ikasi eban baŕiro be euzkera. 1924'tik asi zan olerkigiñan. "Zeruko Argia"ra bialtzen euzan bere olerkijak. Gero euzkotaz zerbait

Epailaren 24'an il zan Donostia'n Bedoña'tar Jokin. Jaupari egin biar eban egunetan il be. "Zerura nijoa. Zerutik lagunduko dizuet, zuei, euzkerari, aberiari... guztiori" iñotzen ilagian egubanian oe-albuban ekusanei. Bere amari, besarkatubaz "Amatxori ez dezala negar egin; ni zoriontsua izango naiz zerura nijoalako" esateko agindu eutsan. Eta Lekaipurubari "Ama Maria'kas ilt egin neketik gabe".

Juan jaku au be. Bäär-beste igali emoteko oraindiño. "Bizitza-arloa, berari landu ta zaindu-biarreko lore-baratza zabaldu ta begiz jota beste baiño ez."

Olerkari

Zeintzuben zerrendaban edo norkutun jarri daikegu Loramendi? Oraiñarteko euzko-olerkari guztijak iru bairutitan sartu leiteikezala, diño, euzko-olerzale batek. Bairuti baten euzko-olerkari eritzoyak; eta euron artian txapeldun, oraindiño, oraintsu Jaupalgaitegi onetan egon dan, Jakakortajarrena'tar Jxomin. Bigarren bairutian bat baiño eztogu izango; Lizardi. Mamin, tinkotasun eta laburtzalia. Irugarren esi bairuban irudimen ego-artardunak zenbatu daikeguz. Euren bairuko gogayak ikerri ta irudijen erruki barrik azaltzen dabezanak. Ibarretatik mendi-gallurretarako, mendi-gallurretatik ilargi ta eguzkirañoko jira-birak artear egin dagijez. Onen irudimenak ertautza lotzailirik. Onetarikuben artian dautogu Loramendi be.

1929'kn olerkari lez lenengo dagerkigu. Ordubarn itzuli eban euzkerara "Stabat Mater". Badezpadatubak dira oraindiño bere lenengo olerkiak. Olerkari asiparrierenak. Eta ariketubak be. Norkk zuzendurotsi be ezeban eta. Mamingeak ba-dira be irudita pitxi ugarijekin apaindubak. Gogai-berintsuz urrijak. Irudiz ugarijak.

Ona emen aipagarrijen batzu. Zeruko Argia'n argitaldubak (Jakintza aldizkingian be argitaldu dira bariño batzu). "Onazi erleteuak" eta "Intxaurta". Erezak-dira biak; irudi-ezaguneko pantzijak; esakun politak. "Ilargitara" Gogayak, iñorenak ba-dira be, ederto a-

zaldubak. "Enade Baltza" matxzun-alegi bijoztoria. "Otoi Adiskide" samurra ta gogai bijotzondutan jayoz betia. "Arroetan gora" Arrotzubak eleiz-buruban datuzemian, bere bijotzijan sortu dan goi-zaletasuna adierasten deusku. Laburra ta biguna. Badauz beste batzu be. "Landaratzu Amestaria", "Noletan gero", "Maitasuna ez da maitatua" "Gustiz Ederra" ta abar.

Baña Lizamendi'ren olermena datuskubenak "Arantzalien Arats-otoitza" ta "Baiuntza Leyoan". Lenena Tolosa'ko olerti-gudara bialdu ebana. Eta bigarrena 1932'ko Errenteri'ko olerti-gudan lenengo sarija atara ebana. Eurotaz itz bi.

"Arantzalien Arats-otoitza"-olertian da Lizamendi'n irudimenari dagotsijona. Emonaze zan bere irudimena. Baña bere irudimena ez bakarrik, bere bijotzondua be emon usten zan. Ondarrebi'ko baztarren batetik, amaitza bidar begiratu eban itxasorantz. Ondo asmatu ta oldoztube da bai olerti au. Ondo auznastuba itz-neurtubetan itxuli auretik. Berez, bare-bare, bata-bestian jarrayan datortsijoz olertijak.

Baiuntza-leyoan. Bere baiuko matxzun-zotiñak, dagoriz olerki onetan. Bere bijotz-galdeko Jainko-maitasunak sortutako abestia da. Bere gogubaren irtzorijak darakusguz Kristar Deunaren adurra darijola, diño Aitzol jaunak. Gogayak saturak, irudi-apañak edaragubak. Irudimena, bijotza ta gogayak bardintzutzamar darabiltz. Bestietan baño bardintsubago beintzat. Irudimena ta bijotza gogayak baño areagogo, ¡tori zala da izan be iruron bardintsu erabiltea...!

Batzubetan beintzat irudi urrijol-zalaparta rietz gogayak itoerazade be ilundu burdegizela diñot nik.

Lenguban ātetu gebanaz zeritusi gitxi dau, mekk. Norbatek Jauregi'tar poldobika jaz ete-daben esan dau. Eta ixan ezin leitekiana. Bijōk bariuti batetubek dira ta. Bana ori-gātik ezin esan geinke Jauregi ixan dabela Larramendi'k zuzendari ta irakasle. Alpēritk ne-katuko gara euzko-olerkarijen artian onen irakasle edo zuzendaria aurkitu gura be-dogu.
Gabriel y Galan, Salamankar olerkari ospetsuba ezpete-da? Bayetz diño Aitzol Jaunak.

"Miren Ederia, Miren Garbia,
Gure izkuntzaren Ama-Eztia;
Lausorik gabe
Euzkera gorde.
Zuri zuretzat iraun dezake,
Eman naroteu, eman bizia."

1934'gn jorailaren 1'an

Aritzmendi-Jrieta'tar J. Mª